



## Durangaldeko emakumeek planto

Durangaldeko milaka emakumek kaleak hartu zituzten, atzo, martxoak 8, emakumeen eskubideak aldarrikatzeko. • 5

## “Emakumeen taldeetako zuzendari gehienak gizonezkoak dira oraindik”

**Iurreta** | Pelotoian txirrindulariak ilaran, denak emakumeak. Euren atzetik taldeetako autoak, ilaran hauek ere, eta gehienek bolantean gizonezko bat. Agurtzane Elorriaga salbuespenetako bat da. Bizkaia Durango-Euskadi Murias taldearen zuzendari dabil. • 2-3. orrialdea



LEÑOR ELORRIAGA

## Gizon batek heriotza mehatxua egin dio Pilar Riosi

**Durango** | Ofelia Hernandez hil zuen gizonak heriotza mehatxua egin zion, joan zen barikuan, Pilar Ríos alkateorde eta Berdintasun arloko presidenteari Madalena ondoko kafetegi batean. Plataforma Feministak elkarretaratzera deitu du gaurko, 20:00etarako, Andra Marian, eraso hau gaitzesteko. 6. orrialdea



**ALKIMAX**  
Alquilamos soluciones

BERRIZ Eitua industriagunea, 71C · Tel.: 946 824 550  
GERNIKA Goko Ibarra, 26 · Tel.: 946 271 310  
alkimax@alkimax.net  
[www.alkimax.net](http://www.alkimax.net)

**NOBEDADEAK**

Eskuzko igogailua 160Kg -rarte

Eskuzko igogailua 360Kg -rarte





LEHIOR ELORRIAGA

**Agurtzane Elorriaga Derteano**  
Bizkaia-Durango  
Euskadi Murias  
taldeko zuzendaria  
Iurreta | 1978

LEHIOR ELORRIAGA

## “Urte askoan lanean ibili direnak zapaldu barik jokatu behar lukete dirua dutenek”

Proiektua indartuta, Bizkaia Durango-Euskadi Muriasek ilusioz ekin dio denboraldiari Agurtzane Elorriagaren gidaritzapean

**TXIRRINDULARITZA • JOSEBA DERTEANO**  
Berdintasunaren ispi luze izateko urrun dago oraindik txirrindularitza. Soldata eta sariak dira gizonen eta emakumeen txirrindularitza banatzen duten lubakietako bi, baina ez bakarrik. Bizkaia Durango Euskadi Murias taldea gidatzen hasi denetik, emakumezko zuzendari bakarrenetakoa dela konturatu da Agurtzane Elorriaga. Ateak zabaldu dizkio ANBOTOrri, hainbat gai jorrazteko: berdintasuna, Muriaseguz indartu duten proiektua, aurtengorako esperantza eta ilusioak, eta Movistar ahaltsuaren sorrera. Badago itxita mantentzea guragodu duen ate bat ere.

**Irakaslea zara ogibidez. Martxoaren 8a greba eguna izan da zuretzat?**  
Bai, greba eguna izan da. Garrantzitsua iruditzen zait.  
**Emakumeen eta gizonen txirrindularitzaren artean, zertan nabaritzen da berdintasun falta?**  
Soldatan. Hor dago desberdintasun handiena eta nabariena. Sarietan ere bai. Gizonen eta emakumeen sariak ez dute zerikusirik. Horrez gainera, zuzendari lanean nabiletetik konturatu naiz emakumeen taldeetako zuzendaririk gehienak gizonetzkoak direla oraindik. Ia denak. Joan zen asteburuko proban, hogeituzendariatik neu izan nintzen emakume bakarria. Valentzia-

ko Itzulian, aldiz, 29 zuzendaritik hiru geunden.  
**Aurtengo txirrindularitza proiektua zertan da iazkoaren jarraipena eta zertan berria?**  
Berez iazkoaren jarraipena da aurtengoa, lan taldea lehengoa da eta. Gure proiektuari jarraipena emango diogu. Nobedade bakarra babesle berriak ditugula da, eta horrek asko indartu du taldea. Batez ere, diru kontuetan, materialean eta abar.  
**Lourdes Oyarbide eta Mavi Garcia Movistar taldera joan zaizkizue, aurtentz sortu duten talde ahaltsura. Diruaren tirania emakumeen txirrindularitzara heldu da?**  
Dirua sartzea ondo dago, orain arte ez da egon eta. Beraz, hori ondo dago. Baina dirua duenak zuzen jokatu behar du, hori da egin behar lukeena.  
**Zer adierazi gura duzu horregaz?**  
Ba, urte askoan lanean ibili direnak zapaldu barik jokatu behar luketela dirua dutenek, haien iritziak aintzat hartuz, egindako lana eskertuz eta lagunduz.  
**Aurtentz zelako taldea duzu? Zelan definituko zenuke?**  
Taldea berria da. Txirrindulari berri asko ditugu aurtentz. Denetarik dugu. Klasikoetan ondo ibiliko direnak, gorantza ondo doazanak... ilusio handiagaz dauden txirrindulariak dira.

**Txirrindulari mota jakin batzuk bazen saiatu zarete ala denetarik ekarri duzue?**  
Gaitasun desberdinetako txirrindulariak ditugu. Lasterketako ezagarrak zelakoak diren, ziklista batzuk edo besteak eramango ditugu.  
**Durangaldeko txirrindulari bat dabil taldean: Aroa Gorostiza elorriarra. Iazko azaroan batu zen taldera. Denboraldi honetan zer eskatzen diozu?**  
Aurtentz, gazteetatik elite-23 urtez azpiko mailarako saltoa eman du.

Lehenengo denboraldia du kategoria berrian. Beraz, oraindik ezin zaio askorik eskatu. Ikasi egin behar du, hori da bere egin beharra. Aipatzekoa da zelako gogotsu etorri den. Niretzat sorpresa bat izan da. Gogo handiz eta maila polit batean ikusten dut.  
**Gazteetatik elite mailarako saltoa handia da?**  
Handia baino gehiago: itzela!  
**Zu txirrindularia izan zinenen, salto hori igarri zenuen?**

Beti igartzen da. Exijentzian, kilometro kopuruan... Gazteena zara. Aroari berdina gertatzen zaio, bera da gazteena. Beraz, dena da berria berarentzat.  
**Iaz Espainiako Kopan hainbat garai-pen lortu zenituzten eta taldekako sailkapena irabazi zenuen. Movistar taldea tarteko dela, iazkoa errepikatzea posible da?**  
Irabaztea gaitza izango da, baina saiatuko gara.  
**Gerra ematen?**  
Gerra ematen ez, irabazten saiatuko gara.  
**Nor izango duzue taldeburu?**  
Hainbat ditugu, baina une honetan Dani Christmas ikusten dut indartsuen. Ondo hasi da.  
**Nor da Dani Christmas?**  
Ingelesa da. Aurreko lau denbo-



Talde batua osatzen dute eta ilusioz ekin diote denboraldi berriari.



raldietan Belgikako taldeetan ibili da. Iaz polito aritu zen eta begia bota genion. Aurten gure eskaintza onartu eta hona etorri da. Aldapa gora ondo dabil eta klasikoetan ere ondo moldatzen da.

**Taldearen aurkezpenean Anna Stricker italiarra aipatzen zenuen taldeburu.**

Stricker da orain arte emaitzarik onenak lortu dituen, baina Christmas da denboraldia ondoen hasi duena, eta Espainiako Kopako lasterketak urte hasieran izaten dira. Alicia Maria Arzuffi italiarra ere hor dugu. Emaitza onak izan ditu eta oso igotzaile ona da. Ea Italiako Giroa joatea lortzen dugun. Horrela bada, proba hori ondo prestatzea gustatzen zaio.

**Denboraldi hasiera itxaropentsua izan duzue. Joan zen asteburuan, Belgikan, gertu izan zenuten podiuma.**

Bost kilometroren faltan, gero lasterketa irabaziko zuenak eraso jo zuen. Haren atzetik Dani Christmas irten zen. Bigarren helmugaratzeko zorian izan zen, baina 500 metroren faltan harrapatu zuten.

**Nazioarteko lehenengo lasterketan gertu izan zenuten podiuma.**

Imajinatu lortu bagenu! Itzela izango zen. Pena!

**Gero esango dute taldeak ez duela mailarik.**

Langa non jartzen duzun da kontua. Women World Tourreko lehen bost taldeetan jartzen baduzu, ez, baina Valentziako Itzulian 29 taldetik hamargarren geratu gara. Hamar onenen artean. Egoerari nondik birgizatzen diozun, badugu maila.

“**Egoerari nondik birgizatzen diozun, badugu maila. Valentzian, 29tik 10. taldea izan ginen**”

**Mingarria izan da Emakumeen Birarako gonbita jaso ez izana?**

Polemika horri buruz ez dut ezer esan gura.

**Txirrindularia zinenean ilusio berezia egiten zizun Biran aritzeak?**

Jakina, nire herriko proba da. Gaztetatik txirrindularitza utzi arte, urtero parte hartu nuen.

**Zeintzuk dira zuen hurrengo lasterketak?**

Domekan Women World Tourreko lehen lasterketa dugu Herbehereetan, Drenden. Harbidea eta haizea: lasterketa zaila izango da, joan zen asteburuko baino zailagoa. Gero, Belgikara ere joango gara, astebete pasarako. Lau lasterketa ditugu han.

# “Txirrindularitza magikoa da”

Agurtzane Elorriaga, Jon Elorriaga eta Andoitz Elorriaga: txirrindularitza arnasten duten hiru senitarteko

**DURANGO • JOSEBA DERTEANO**

**Edozein lasterketatan Bizkaia Durango-Euskadi Murias taldearen autoko irudia: bolantean Agurtzane, proiektuko gidaria eta arduraduna; ondoan aita, alabari erreleboa emanda bere esperientziagaz laguntzeko prest; atzean eserita, Andoitz neba, mekanikari bat baino gehiago, errepideko bizipenetan aurreko biek adinako esperientzia edo handiagoa duena, itzalpeko aditua.**

**Jon, sortu zenetik taldeko zuzendaria izan zara... aurten arte.**

**Jon:** Oraindik jarraitzen dut, baina albotik. Agurtzane da zuzendaria.

**Agurtzane:** Badakizu zer gertatzen den? Aitak berak dio. Neska gazteen eta adinean aurrera doazenen artean denboran desfase handia dago.

**Jon:** Hizkuntza desberdinetan egiten dugu berba.

**Agurtzane:** Baina oraindik jarraitzen du. Joan zen asteburuan, Otxandion, [Euskaldun Torneoan] bera izan zen zuzendaria.

**Aitarengandik zer ikasi duzu taldeak zuzentzeko zeregin zail horretan?**

**Agurtzane:** Konturatu naiz berari gertatzen zitzaizkionak gertatzen zaizkidalan niri ere. Beti astirik barik zebilela ikusten nuen, eta esaten nion: “Baina zelan zabilta beti astirik barik?”. Eta orain niri berdin-berdin gertatzen zait.

**Estrategiak erabakitzerako orduan, asko eztabaidatu izan duzue?**

**Agurtzane:** Ez, gutxi.

**Jon.:** Komentarioak egiten ditut, iritzia eman, baina bestelakorik ez.

**Agurtzane.:** Mekanikariagaz ere komentatzen ditugu horrelako kontuak.

**A, bai? Andoitz ere horrelako erabakien parte da?**

**Andoitz:** Esan behar denean, esaten dut. Laguntzen saiatzen naiz.

**Jon.:** Ona da horrelako kontuetan. Egunerokoari lotuta dago.

**Agurtzane.:** Lasterketetan hirurok joaten gara kotxean. Ni gidari, aita alboan, eta Andoitz atzean. Nik hamar urtean eta aitak 15 urtean ikusitakoak Andoitzek ia 20 urtean ikusi ditu. 18 urtetatik dabil.

“**Somarribak Tourreko etapa irabazi eta podiumean ikurrina atera zuen unea hunkigarria izan zen**”

**Jon, txirrindularitzari lotuta daramazu bizitza osoa, sekula txirrindularia izan barik. Nondik datorkizu afizioa?**

**Jon:** Juan Mari Balier lehengusua Duranguesa elkartearen zegoen eta 20 bat urte nituenean ea laguntzeko prest nengoan galdetu zidan. Orduan hasi nintzen.

**Orduan txirrindularitza zalea zinen?**

**Jon:** Bai, beragatik. 10 edo 15 urteagaz bere lasterketak ikustera joaten nintzen. Eta lasterketetan bere zuzendariagaz kotxean joandakoa naiz. Gogoan dut zaparroa nintzela

bide alboan berari itxaroten egoten nintzela ura emateko. Hortik dator kit zaletasuna.

**20 urteagaz sartu zinenean, imajinatzen zenuen hainbeste urtean jarraituko zenuela?**

**Jon:** Ba, ez. Gero dena segidan etorri zen. Duranguesako idazkaria izan nintzen, eta gero emakumeen talde berria etorri zen.

**Zelan gogoratzen duzu Bizkaia-Durangoren sorrera?**

**Jon:** Hiru izan ginen bultzatzaileak: Juan Mari Balier, Juan Jose Ziarrusta eta ni. 2003an sortu genuen. Nesken taldeak izan ditugu beti, baina klubeko taldeak ziren. Bizkaia-Durangogaz UCI-rako saltoa eman genuen.

**Joane Somarriba zenuten taldean. Urte onak izan ziren, ezta?**

**Jon:** Bai. Badago une bat, gogoratzen dudanean negar anpuluak irteten zaizkidalan. Frantziako Tourreko etapa bat irabazi ostean, podiumera igo zenean ikurrina atera zuen. Une hunkigarria izan zen. Gainera, helmugara bakarrik heldu zen eta gu atzetik kotxean, dena jarraitzen.

**Txirrindularitzatik bizi ez eta hainbeste erantzukizun eta buruhaustek konpentsatzen dute?**

**Jon:** Txirrindularitza magikoa da. Magia berezi bat du. Hor zaude, saltsan zaude... Ez dakit zelan azaldu, baina tiratu egiten dizu.

**Andoitz, gaur eguneko bizikletek 1 Formulako autoak dirudite hainbeste teknologiagaz. Abantaila ala desabantaila da mekanikarientzat?**

**Andoitz:** Gaur eguneko bizikletek aldagailu elektronikoak dituzte eta arazo gutxiago ditugu. Teknologia abantaila bat da alde horretatik. Hori bai, teknologia hori ondo eza-gutu behar! Baina, bestela, berdin eragin behar zaie pedalei.

**Itzuli batean zaudenean, zein da mekanikari batentzat unerik estresagarriena?**

**Andoitz:** Erlojupekorik badago, egun hori. Matxura bat dagoenean denborarik gehien galtzen den eguna da. Erlojupeko batean ez dago arazoa konpondu eta pelotoiagaz bat egiteko aukerarik. Galtzen den denbora galduta dago.

**Agurtzane, umetan bizikletan ibiltzen zinen?**

**Agurtzane:** Umetan, baserrian, bizikletan mugitzen ginen beti. Kirol moduan, 15 urteagaz hasi nintzen. Hasi gura nuela esaten nion aitari, baina ez zidan jaramonik egiten.

**Jon:** Amari esan zion: “Ematen du aitak ez duela gura ni bizikletan aritzea”. Hasi zen eta denok pozik.

**Agurtzane:** Burugogorra denak... 16-17 urtean aritu nintzen.

**Asko aldatu da txirrindularitza?**

**Agurtzane:** Gero eta profesionalagoa da. Esaterako, hasieran sentsazioei jarraitzen genien. Gero, pultsomeetroak agertu ziren, orain potentziometroak daude...  
**Jon:** Orduan denok batera irteten genuen eta taldean ibiliz ikasten zen. Orain prestakuntza serioagoa da. Orduan ez zegoen UCI talderik estatuan. Gurea izan zen mota horretako aurrenekoa.

LEHIOR ELORRIAGA

Jon Elorriaga (1955), Agurtzane Elorriaga eta Andoitz Elorriaga (1981) euren sorterrian, Iurretan.

# Politikarien babesagaz, Jaurlaritzara joan gura du Berton Bertokoak

Alderdi guztiek agertu diote atxikimendua Durangaldeko eskola jantokietako dinamikari



Eguazteneko prentsaurrekoan politikariak ere egon ziren, dinamikako kide diren zenbait gurasogaz batera.

**DURANGALDEA • MARKEL ONAINDIA**

Berton Bertokoa dinamika Durangaldeko alderdi guztien babesagaz jaso du, eta indar horregaz Eusko Jaurlaritzara joan gura dute. Abenduan eskola jantokien inguruko mahai berezi bat sortu zen Eusko

Legebiltzarrean, ekainera arte gaia aztertzen egongo dena. Bada, Berton Bertokoako kideen asmoa mahai horretan euren iritzia plazaratu ahal izatea da. Izan ere, ikastetxeek jantokiaren inguruan

erabaki ahalmena eduki ahal izateko, erkidegoko legea aldatu egin beharko litzateke.

Eguaztenean prentsaurrekoa eskaini zuten Zabalarra eskolan, dinamikari atxikimendua agertu

dioten alderdietako kideekin. EH Bilduren izenean Endika Jaio Mañariko alkatea egon zen. Jantokiak “gune ekologiko, osasuntsu eta hezitzaile bilakatzeko lanean” ari direla azaldu zuen. “Gure helburua jantoki ereduaren eraldatzea da, jantokitik jangelara salto eginez, beti ere ikastetxe bakoitzak bere ereduaren gainean duen erabakitze eskubidea eta autonomia oinarri izanda”.

Berrizko alkate Orlan Isoirdek parte hartu zuen EAJren aldetik. Udalek eskumenik ez dutenez gai honetan, Eusko Jaurlaritzagaz harremana beharko dela nabarmendu zuen. Urkiola Landa Garapena ere horretarako tresna izan ahal dela dio. “Gure ustez, Urkiola Landa Garapena izan beharko litzateke gaiaren motorea, udalak bertan gaude eta. Bestalde, sektorearen inguruko hausnarketa bat ere behar da, ikusteko ea gai garen beharrak asebetetzeko”.

Herriaren Eskubideko Patxi Lakunzak adierazi zuen dinamika “interesgarria” iruditzen zaiela, eta haien eskariekin bat datozela. PSE-Eetik Fernando Castillo joan zen prentsaurrekora; proposatzen den ereduaren lehen sektorea bultzatzeko modu bat dela azpimarratu zuen. Bestalde, PPko Fran Garate ezin izan zela egon argitu zuten antolatzaileek, baina alderdiaren babesagaz dutela.

## Errigora bueltan da, sukaldeak Nafarroako produktuekin betetzeko asmoz

**DURANGALDEA • M.O.**

Martxoaren 20ra bitartean, Nafarroa hegoaldeko olio eta konterbak eskatu ahal dira Errigoraren kapaina berriari esker. Hango ekonomia eta auzolana indartu gura dituzte. Hauek dira eskaerak egiteko lekuak: Du-

**‘www.errigora.eus’ webgunearen bidez, leku batzuetan Internetez ere jasoko dituzte eskaerak**

rangoko AEK, Berbaro, Instituta, Udal Euskaltegia, Ibaizabal Ikastola, Kurutzia Ikastola eta Zabalarra eskola; Elorrioko AEK eta ikastola; Iurretako dantza taldeko lokala; Otxandioko Kementsu; Zaldibarko liburutegi zaharra; eta Zornotzako Andra Mari Ikastola, Ixerbe kirolegi ondoko lonja eta AEK. Gainera, [www.errigora.eus](http://www.errigora.eus) webgunearen bidez, leku batzuetan Internetez ere jasoko dituzte eskaerak.

**DURANGO • JONE GUENETXEA**

Sindicato Labrego Galegoko 16 gazte Euskal Herriko baserritarren esperientziak ezagutu dituzte, EHNE sindikatuaren eskutik. Mociade Labrega gazteen elkarteak agroekologiaren arloan Euskal Herrian martxan jarri diren esperientziak ezagutu gura izan ditu. Astelehenean barikura, hainbat ustiapen bisitatu dituzte. Esetegiak, ortuak eta erle-zaintzako ustiategiak bisitatu dituzte. Zuzeneko salmentari interes handiz jarraitu diote. Bisitako interesguneetako bat Kurutzia jantokia izan da. 800 bat umek bertoko baserritarrek ekoiztutako sasoiko barazkiak jaten dituzte egunero. “Umek kalitatezko janaria jan dezakete gehiegizko prezioa or-

# Sindicato Labrego Galegoko kideek Kurutzia jantokia bisitatu dute

daindu barik, eta hori gurean ere posible izango litzateke”, dio Sonia Vidalek.

Galiziaren kasuan, jantokietan “atzerapausoak” ematen ari direla nabarmendu du Alberte Lamazaresek. “Orain 30 urte janaria eskolatan prestatzen zen, eta umek zerbitzatzen eta batzen ikasten zuten. Gaur egun, horrek okerrera egin du”, azaldu du Lois Varelak.

Egunotan Euskal Herrira egiten duten bisitan sentitu duten kontzientziazio soziala azpimarratu dute sindikatuko ordezkariak.



Sindicato Labrego Galego kideak Urko Rodriguez zuzendariagaz, Kurutzian.

## 9 proiektu saritu dituzte ‘Gaztedi Durangaldea’ enpresa-lehiaketan

**DURANGALDEA • M.Z.**

Bizkaiko Foru Aldundiak bultzatutako eta Durangaldeko hainbat udalen parte-hartzeagaz garatutako *Gaztedi Durangaldea* ekimeneko sari banaketak egin zituzten joan zen barikuan.

Durangoko Udalak Doozy eta Express NAP proiektuak saritu zituen, Zornotzako Udalak Berbizi eta Skyroad proiektuak eta Ermuako Udalak Damdaw, Ermuap, Time Trainer, Mycareer eta Aurkitzen EH proiektuak.

**anboto**  
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9  
48215 Iurreta - Bizkaia  
Tel.: 946 816 558  
Erredakzioa: 946 232 523  
Publizitatea: 946 217 902  
publi@anboto.org

2018ko martxoaren 9a  
16. urtea - 712. alea

Lege gordailua:  
BI-2268/01  
ISSN:  
1578-7028  
Tirada:  
11.500 ale



**Bizkaia**  
foru aldundia  
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



**EUSKO JAURLARITZA**

**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

LAGUNTZAILEAK





Durangon emakumeen katea egin zuten atzo Barandiaran nagusien egoitzatik Kurutzia gako zahar-etxera. 2.000 emakumek parte hartu zuten ekimenean.

## Emakumeen aldarrikapenak inoiz baino indartsuago zabaldu dira kaleetan, greba feministagaz planto eginda

Martxoaren 8an egindako lehen greba izan zen atzokoa Euskal Herrian; lanuzteak eta mobilizazio ugari egon ziren

### DURANGALDEA • MARKEL ONAINDIA

2018ko martxoaren 8a historia-  
ra pasatuko da Euskal Herrian,  
emakumeen egunean lehenengoz  
greba feminista egin delako. Iaz  
munduko hainbat lekutan hasitako  
ekintzari segida eman, eta Euskal  
Herriko mugimendu feminista  
munduko grebara gehitu da, 170  
bat herrialdeetako emakumeekin  
 batera. Atzo, emakumeen aldarri-  
kapenak inoiz baino indartsuago  
zabaldu ziren kaleetan; grebalariek  
planto egin zuten, mundua mugia-  
razteko helburuagaz.

Goizean goizetik ekin zioten  
feministek protestari. Durangoko  
kasuan, gauerdian elkartu ziren  
lehenik, Artekalen mural bat mar-  
gotzeko asmoz. Eguna argitzera-  
koan, Andra Marian informazio  
gunea ipini zuten. Hantxe gosald  
u, eta grebaren deialdia hedatzen  
hasi ziren. Gero, 11:30ean, Baran-

### Barandiaran nagusien egoitza eta Kurutzia gako zahar-etxea emakume kate batez lotu zituzten

diaran nagusien egoitza eta Kuru-  
tziagako zahar-etxea emakume  
kate batez lotu zituzten, zaintza  
grebari erreferentzia eginez. 2.000  
emakume inguru batu ziren, pro-  
testen antolatzaileek nabarmendu  
dutenez.

### Bazkaria, etxetik

Aipagarria da, Durangon eta bes-  
te herri batzuetan ere, bazkaria  
etxean eginda eraman zutela, atzo-  
koa kontsumo greba ere izan bai-  
tzen. Horixe da Elorrioko kasua,  
kazeroladaren ostean bazkari auto-

### Nabarmentzekoa da Durangoko hainbat merkatarik zarratu egin zutela denda

### Ekintza anitzak ikusi ahal izan ziren; Zornotzan, esaterako, zumba tailerra antolatu zuten

gestionatua egin baitzuten. Ekintza  
anitzak ikusi ahal izan ziren; Zor-

notzan, esaterako, zumba tailerra  
antolatu zuten. Bestalde, elkarreta-  
ratzeak egin zituzten herririk he-  
rri. Iurretan, adibidez, Anderebide  
elkarreak mobilizaziora deitu zuen.

Grebak babes handia jaso zuen.  
Politikari dagokionez, EH Bilduren,  
Herriaren Eskubidearen eta PSE-EE-  
ren atxikimendua eduki zuen.  
Maila sozialean, elkarte ugari  
egin zuten bat. Nabarmentzekoa da  
Durangoko hainbat merkatarik zar-  
ratu egin zutela denda, 19:00etatik  
20:00etara, manifestazioak iraun  
bitartean; Alde Zaharreko tabernak  
izan ziren horietako batzuk.

### ANBOTO on ere planto

Bestalde, ANBOTOk emakumeek  
planto egin zuten, eta mobilizazioe-  
tan parte hartu ahal izateko, ados-  
tasunera heldu ziren erredakzioan.



Elorriko hainbat mobilizazio antolatu zituzten atzo.



Durangoko emakumeek\* planto plataformako kideak Goienkalen egindako muralaren aurrean.



Abadiñon manifestazioa egin zuten.



# Ofelia Hernandez hil zuen gizonak heriotza mehatxua egin dio Pilar Rios alkateordeari

Durangoko epaitegiak lau hilabeteko urruntze agindua ezarri dio Felipe Ardanzari; iaz irten zen kartzelatik, 3. graduagaz



Plataforma Feministak elkarretaratzea antolatu du gaurko, 20:00etan, Riosen aurkako eraso salatzeke.

## DURANGO • MARKEL ONAINDIA

2005ean Ofelia Hernandez hil zuen gizonak heriotza mehatxua egin zion, joan zen barikuan, Pilar Rios alkateorde eta berdintasun arloko presidenteari, Madalena inguruko kafetegi batean. Eskuagaz tiro egiteko keinua egin zuen bost bider.

Felipe Ardanza da gizon hori, Ofelia Hernandezen bikotekide ohia zena bere hilketaren unean. 2006an 17 urteko kartzela zigorra ezarri zion epaileak, eta 11 urte beteta, iaz irten zen kalera hirugarren gradua lortuta. Baldintzapeko aska-

tasunean dago, eta barikuko erasoaren ostean, Durangoko 4. instrukzio epaitegiak lau hilabeteko urruntze agindua ezarri dio. Beraz, libre jarraituko du, berritako eraso sexista bat egin arren.

### Epaitegian, astelehenean

Riosen ustez, erasoak “zerikusi zuzena” du berak udalean duen Berdintasun arloko presidente karguagaz. Alkateordea astelehenean egon zen epaitegian, Aitziber Irigoras alkateak eta PSE-EEko hainbat kargudunek lagundurik. Hain zu-

zen, PSE-EEko Bizkaiko exekutibak babesa erakutsi dio Riosi ohar bidez, eta berak urteotan egindako lana goraiatu du.

### Udalaren babesa

Udaleko bozeramaileen batzordeak gertaera salatzeke adierazpena

**Riosen ustez, erasoak zerikusi zuzena du Berdintasun arloko presidente karguagaz**

onartu zuen aho batez, martitzenean. “Gure elkartasuna, adaitasuna eta gertutasuna erakutsi gura dizkiogu Pilar Riosi; halaber, babesa ematen diogu bortizkeria matxistaren aurka eta gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren alde sustatzen ari den lanari eta, aldi berean, egiteko horretan oldartsu jarraitu dezala desio diogu”. Gaur 20:00etarako Plataforma Feministak deitutako mobilizazioan parte hartzeko deia egin zuen, eta herritarrei “zero tolerantzia” edukitzeko eskatu ere bai.

# Durangoko Udalak Euskara Kontseilua eratu du euskalgintzako elkarte eta norbanakoekin

Ekimenean parte hartu gura dutenei zuzendutako batzar informatiboa egin zuten, eguaztenean, Pinondo Etxean

## DURANGO • JONE GUENETXEA

Durango herri euskaldunagoa bilakatzea. Horixe da Durangoko Udalak abiatutako euskara kontseiluaren helburua. Azaroko osoko bilkuran foro hau zuzenduko duen

araudia onartu zuten aho batez. Eguaztenean, berriz, euskara kontseiluan parte hartu gura duten elkarte, eragile eta norbanakoekin batzarra egin zuten Pinondo Etxean. Udalak kontseiluaren ha-

sierako pausoak Berbaro elkarteagaz, Plateruenagaz eta ANBOTO-gaz eman ditu. Sarea hazten ari da, baina. Eragile horiez gainera, Euskal Herrian Euskaraz, Ibaizabal Ikastola, Udal Euskaltegia eta

AEK batu dira ekimenera. Hainbat norbanakok ere bat egin dute kontseiluagaz. Alderdi politikoetako ordezkariak ere hartuko dute parte. Aurrera begira, udalaren plan estrategikoaren lanketa jomugan izango dute, besteak beste.

**Udal Euskaltegia, Berbaro, ANBOTO, AEK, Ibaizabal, Plateruena eta EHE batu dira ekimenera, besteak beste**

Bestalde, Euskaraldiaren inguruko bilera irekia egingo dute martxoaren 13an, 19:00etan, AEKn. Euskal Herri osoan euskararen erabilera ohituretan eragin gura duen egitasmoan parte hartu gura dutenen ideiak ezagutu gura dituzte.



Euskara Kontseiluak eguaztenean egindako batzarra, Pinondo Etxean.

## ‘Domekäero’: ume eta gaztetxoei zuzendutako aisialdi eskaintza berria

### DURANGO • M.O.

Ume eta gaztetxoentzako doako aisialdi eskaintza berria dakarte Durangoko Udalak, Berbarok eta Plateruenak, *Domekäero* izenekoa. Ekainera arteko domeka arratsaldetan –Aste Santuan ezik– 100 bat ume eta gaztetxoentzako ekintzak prestatuko dituzte. 6-10 adin tarteko 50 ume Elkartegian jolastuko dira, eta 11-14 adin tarteko beste 50 gaztetxo, Plateruenean. Gainera, Plateruenean ekintza bereziak ere antolatuko ditu bariku eta zapatu batzuetan.

Aitziber Irigoras alkateak kontatu du umeen espazioen eta eskaintzaren inguruan hausnartzen hasi zirela irailan, eta jaio den proposamen bat dela hau, momentuz probakoa. “Aisialdian euskaraz bizitzeta da helburu nagusia”, Berbaroko Maite Unzaluren esanetan.

Izena eman gura dutenek hileka egin beharko dute, eta hilaren aurreko astea da epea. Inskripzioa Pinondo Etxean egin behar da.

## Abesti feministen lehiaketako biharko finalean 10 hautagai egongo dira

### DURANGO • M.O.

Udaleko Berdintasun Sailak Abesti eta Bertso Feministen Lehiaketa antolatu du lehenengoan, eta bihar jokatuko da finala, 19:00etan, Andra Mariko elizpean. Lehiaketara 15 abesti aurkeztu dituzte, eta 10

**Lehiaketara 15 abesti aurkeztu dituzte, eta 10 onenak eskainiko dituzte bihar zuzenean**

onenak eskainiko dituzte bihar zuzenean. Irabazleak 600 euro jasoko ditu, eta publikoaren gogokoena, 500.

Genero berdintasuna edukitzat duen sorkuntza eta hausnarketa bultzatzea da ekimeneraren zentzua. Gainera, mezu matxistak eguneroko gai diren musikan eragin gura dute. Arlo horretan gazteak aktibatzea da helburu nagusia, belaualdi berriak gaur egungo egoera aldatzeko gakoa izango direla uste dutelako.



# 350 sinaduratik gora bildu ditu Abadiñoko guraso talde batek, umeentzako gune estaliak eskatzeko

Abadiñoko udalbatzari umeentzako eskaintza kulturala handitzea eskatzeko ere baliatuko dituzte sinadurak

**ABADIÑO • ARITZ MALDONADO**

Azken asteetan, Zelaietako guraso talde bat martxan jarri da umeen aisialdirako dauden gabeziak betetzeko alternatiba eske. Sinadurak biltzen ari dira, umeentzako agenda kulturala areagotzeko eta umeentzako jolas parke berri eta estalia eskatzeko. Jadanik, 350 sinaduratik gora bildu dituzte, eta Aste Santuko oporren aurretik hauek udaletxean entregatzeko asmoa dute. “Zelaieta oinezkoentzat egokitze obrak direla-eta, ume eta



Zelaietako eskolako hainbat familia, sinadurak biltzen egon ostean.

**Aste Santuko oporren aurretik entregatuko dituzte sinadurak Abadiñoko udaletxean**

gurasoentzat aterpeak egiteko aukera kontuan hartzea gura dugu”, adierazi du Amaia Lasuen guraso taldeko kideak. Hala ere, hutsunea Abadiño osoan dagoela nabarmendu gura izan du Ane Etxeandia kideak ere, ez Zelaietan bakarrik.

**Ludotekak, adibide moduan**

“Elorrion, Elgoibarren eta Zornotzan ludotekak daude, eta horrelako zeozer Abadiñon egotea posible eta beharrezko ikusten dugu”, gehitu du Etxeandiak. Izan ere, herriko ume kopurua ez dator es-

**Umeentzako agenda kulturala ere areagotzeko eskakizuna babestu dute lagun hauek**

kaintzagaz bat, guraso talde honen ustetan. “Eskaintza kulturala ona da, baina ez da nahikoa; ume eta gurasoen erantzuna itzela izaten da, eta, edukiera kontuengatik, sarri areto kanpoan geratzen dira asko”, dio Lasuenek.

**Auzo bileren lehen bira amaituta, balorazio positiboa egin du EH Bilduk**

**ABADIÑO • A.M.**

Auzoetako bizilagunekin egin dituen bileren lehen itzulia amaitu eta gero, balorazio “oso positiboa” egin du EH Bildu koalizioak. Batzar hauetan, adin guztietako ehun bat lagunek parte hartu dute, eta, bertan, auzoetako gabeziak jorratu dituzte. Topaketa hauek problematikak azaltzeko eta auzotarren kezka eta zalantzak jasotzeko.

Bilerak Txanporta eta Errota kultur etxeetan eta Muntzarazko auzo lokalean egin dituzte, eta, besteak beste, gai hauek izan dituzte hizpide: OHZren igoera, neguko aisialdi alternatibak, Zelaietako berrantolaketa eta aire kalitatea. Hurrengo asteetan egitekoak diren bileretan parte hartzeko deia zabaldu dute sare sozialetan, bide batez. Horrez gainera, EH Bilduk esker ona ere adierazi gura izan die herritarrei beraien iritzia emateagatik.

# Pilotalekuko lehenengo solairuko pasilloa kirolgune bihurtuko dute aurten

Aurrekontuan 87.000 euroko diru atala gorde dute proiektu horri ekiteko



Gaur egun lehenengo solairuko pasilloak ia ez du erabilerarik.

**MAÑARIA • JOSEBA DERTEANO**

Joan zen astean udaleko aurtengo aurrekontuak onartu zituzten, aho batez. Aurtengo proiektuetako bat pilotalekuan kirolgune bat egitea da. Lehenengo solairuan, liburutegi zaharrera joateko dagoen pasilloan, egingo dute. “Espazio horrek gaur egun ez du ia erabilerarik”, arazoitu du Endika Jaio alkateak.

Aurrekontuetan 87.000 euroko diru atala bideratu dute asmo horretara eta falta dena soberakinetik hartuko dute. Espazioa egokitzea, erabilgarri jartzea da lehenen-

go lana. Pasilloan dagoen espazioa apur bat handitzen saiatuko dira, barrurantz edo kanporantz. Azpiegitura egokitu ostean, hornitu egingo dute. Herritarrei galdetuko diete zer jarri gune berrian. Aurreproiektua martxoan aurkeztuko dute, Bizkaiko Aldundian.

**Elkarteentzat diru gehiago**

Aurten herriko elkarteekin prozesu parte-hartzaile bat gauzatu du udalak euren beharrian jakiteko eta aurrekontuetan jasotzeko. Prozesu horren ondorioa da ondoko erabaki hau: elkarteek, ohiko diru laguntzez gainera, beste 15.000 euro izango dituzte euren beharrianetarako. Diru hori zelan erabili eta banatu elkarteek euren artean adostuko dutela azaldu zuten udalbatzarrean.

**Errekondo taberna esleitzeko hirugarren saiakera egingo du Mañariko Udalak**

**MAÑARIA • J.D.**

Errekondo tabernaren esleipe-na lehiaketa publikora aterako du udalak. Udalbatzarren baldintza orria onartu zuten joan zen astean. Hirugarren saiakera izango da. Pizgarri moduan, lehenengo lau hileetan alokairuaren erdia ordainduko dute tabernaren ardura hartzen dutenek. Horrela jaso dute baldintza orrian. Baldintzak publiko egiten direnetik aurrera 10 eguneko epea egongo da proposamenak aurkezteko.

**A. Urreta** podólogo

R.P.S. 214/06

**Adinara Urreta Jainaga**

OINETAKO PATOLOGIAK  
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK  
OINETAKO BESTE HAINBAT GAITZ

IMQ MAPFRE

Herriko gudarien kalea, 10 behea - DURANGO - Tel./Faxa: 946 215 404

katerin ardoak

inaki uribe

saltsan

Eguneko menuak - Asteburuetako menu bereziak  
Delicatessena - Ardotegia

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427

saltsan.com





Pulla-Azkarretan 7 hektareako industrialdea eraikitzea gura zuten.

## Pulla-Azkarretako plana bertan behera utzi du auzitegi nagusiak

URA eta AENA agentzien txostenak eta ingurugiroaren eraginaren ikerketa falta ziren

**ELORRIO • MARKEL ONAINDIA**

Pulla-Azkarretako industrialdearen plana bertan behera utzi du auzitegi nagusiak, asteon. URA eta AENA agentzien txostenak eta ingurugiroaren eraginaren ikerketa falta ziren udalak aurkeztutako txostenean.

Auziagaz aurrera egin aurretik, epaileak akats horien berri eman zien aldeei. Egoera hori kontuan izanda, udalak amore ematea erabaki zuen 2016ko apirilean, koordi-

nadoraren erreklamazioek oinarria zutela ikusita. EH Bilduk eta Herriaren Eskubideak egin zuten jarrera horren alde, ez ostera EAJk. Geroztik, polemika iturri bihurtu da plana udalean. Plana onartu zenean, aurreko legegaldian, EAJ zegoen gobernuan, eta EH Bilduk jeltzaleei leporatu zien “hanka-sartze larriak” egitea txostenagaz; jeltzaleek egungo gobernuari “arduragabekeria jokatzeko” egotzi zioten, eta amore ez ematea eskatu zuten.

**Elorrioko Udalean polemika iturri bilakatu da Pulla-Azkarretako industrialdeko plana**

2010ean Hiri Antolamendurako Plan Orokorra onartu zuen udalak, EAE-ANV gobernuan zela. Bertan jasotzen zen Pulla-Azkarretan 7 hektareako industrialdea eraikitzea, eta 2015ean onartutako plan berezia horren segida zen. Orain, atzera botata, ez dago argi zer geratuko den planagaz. EH Bildu plana herritarrekin berraztertzeko prest agertu zen, testuinguru ekonomikoa eta hirigintza garapena

**Pulla-Azkarretan 7 hektareako industrialdea eraikitzea jasotzen zen Plan Orokorrean**

**Auzo Koordinadoraren ustez “balio handiko nekazaritza-lurak” dira eremu horretakoak**

2010eko berak ez direla ulertuta. EAJk planari eustea eskatu zuen, lanpostuak sortuko zituela azalduta.

Auzo Koordinadoraren ustez, “balio handiko nekazaritza-lurak” dira eremu horretakoak eta hori izan da planaren aurka egiteko arrazoi nagusia. Gainera, proiektuaren dimentsioa arrazoitzen zuen “datu falta” egon izana ere salatu du. Pentsara bidalitako oharrean dio “EAJren eta Sprilur-en burugogorkeria” ez dela ulergarria, planean lur industrialak erabili beharrean nekazaritza-lurak erabili gura zirelako. Industrialdea sustatu behar zuen Eusko Jaurlaritzaren menpeko erakundea da Sprilur.

## TAO berrantolatuta, egoiliarrentzat 35 aparkaleku gehiago izango dira herrian

**IURRETA • AITZIBER BASAURI**

Trafikoa Arautzeko Ordenantza (TAO) aldatu ondoren, egoiliarrentzat 35 aparkaleku gehiago izango dira. Zubiaurre kalea osorik eta Bidebarrieta eta Maspe ia osorik gune laranja izango dira. Ibarretxe kultur etxeko aparkalekuaren zati bat ere bai. Guztira, 250 aparkaleku dira egoiliarrentzat. Txandakako aparkalekuak, berriz, 40 izango dira, Askondon eta Maspen. Teltun eraikiko dituzten etxeek eragin dute berrantolaketa.

TAOtik kanpo geratuko dira Ibarretxen geratzen diren aparkalekuak, Paduretakoak eta Bideondo ingurua—Belakortu zerrategia zegoen orubea—. Jendaurrean jarriko da onartutako proposamena, hilabetez.

## Ardo, gazta eta olio dastatzea egingo dute martxoaren 12an, Berrizen

**BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR**

Datorren astelehenean, martxoak 12, Arabako Errioxako ardoa, Eusko Label olio eta Idiazabal gazta dastatzeko aukera izango dute herritarrek, 5 euroren truke, Berrizko Kultur Etxean.

Berrizko Udalak jakinarazi duenez, dastatzea 19:00etan hasiko da eta plaza mugatuak egongo dira. Horregatik, bertan parte hartu gura dutenek aurrez izena eman behar izan dutela nabarmendu dute.

**ZORNOTZA • JOSEBA DERTEANO**

Zornotzako Gazteek antolatutako Gazte Egunak seigarren aldia egingo du gaur eta bihar. Askotariko ekintzen artean pisu nabarmena hartzen dute musika kontzertuek.

Gazte Eguneako ekimen denak ohiko ordua baino sei minutu geroago hasiko dira, seigarren aldiari erreferentzia eginez. Kontzertu akustikoekin hasiko dute musika eskaintza. Gaur, 19:36ean, Kito, ito eta Txon, eta Txalaina taldeen kontzertuekin gozatzeko aukera egongo da karpan. Txalainak Ertzainak

**Gazte olinpiadak eta bazkaria dira Gazte Eguneako beste ekimenetako bi**

taldeari gorazarre egiten dion Errekaldeko —Bilboko— bikotea da. Akustikoan eskaintzen dituzte euren kontzertuak.

Ondoren, Zelaletako kontzertu gelara tokialdatuko dute musika eskaintza. Salitre, Primeros Auxi-

## Arkada Social eta hainbat musika talde ikusteko aukera dago Gazte Egunean

Txalainak, K.O. Etiliko eta Primeros Auxilios taldeen kontzertuak izango dira



Arrasateko Arkada Social taldeak 21 urte daramatza streetpunka lantzen.

lios eta Eztanda taldeak zuzenean arituko dira, 23:06an.

Bihar, 22:06an, K.O. Etiliko eta Arkada Social taldeek eskainiko dute kontzertua karpan. Arrasateko Arkada Social taldeak 21 urte daramatza streetpunka lantzen. K.O.

Etiliko, berriz, Kaos Etilikoko abeslari izandakoak beste musikari batzuekin sortu duen talde berria da.

**Bazkaria eta olinpiadak**

Musikaz gainera, bestelako eskaintza ere badago Gazte Egunean.

Bihar eguerdian, Zornotzako eta Usansoloko gazteek gazte olinpiadetan parte hartuko dute. Usansoloko Gazte Eguneako errebantxa izango da. Ondoren, bazkarian batuko dira. Bazkalostea Kittu taldearen musikak alaituko du.

## Marixurrike Aisialdi Elkarteak zaintza zerbitzua eskainiko du Aste Santuan

**ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR**

Aste Santuko oporretan Marixurrike Aisialdi Elkarteak zaintza zerbitzua eskainiko du Atxondoko ludotekan. Asialdi elkarteko kideek adierazi dutenez, herriko gaztetxoei tailer berezietan parte-hartzeko aukera emango diete 9:30etik 13:30era bitartean.

Bestalde, parte hartu gura dutenek aurrez izena eman beharko dutela eta familiako 2 euro ordaindu beharko direla jakitera eman dute.



**MALLABIA • JOSEBA DERTEANO**

2018an zehar auzo taxia martxan jarri gura du udalak. Auzoak herriguneagaz lotuko dituen zerbitzua izango da, Iurreta eta Berriz herrietan martxan jarri dutenaren modukoa.

Auzo denetara eskainiko dute zerbitzua. Ordenantza prest dute eta, orain, taxi lizentzia esleitzeko

***lurretako eta Berrizko udalekin batuko dira, hango esperientzien berri jasotzeko***

prozeduragaz dabilta. Bizkaiko Al-dundian plaza bat eskatu zuten eta onartu egin zieten. Baldintza orria prest dutenean, lehiaketa publikora

# Taxi plaza bat esleitzeko prozedura hasi dute, aurtengo urtean zehar auzo taxia abiatzeko helburuagaz

Mallabiko Auzoak herriguneagaz lotuko dituen zerbitzua izango da eta 2018an zehar jarri gura dute martxan

aterako dute, lizentzia esleitzeko. Udalak udaletxe aurrean duen aparkalekuan, Arteiz kalean, izango du geralekua taxiak.

Hainbat gauza zehaztu barik dituzte oraindik. Esaterako, zerbitzua erabiltzeagatik zer ordainduko duten auzotarrek, eta zer udalak. Horrelako zein bestelako kontuen inguruko iritziak jasotzeko, herri batzarrak egingo dituzte Aste Santuaren ostean.

Iurretako eta Berrizko udalekin ere batzartuko dira, euren esperientzien berri jasotzeko.



Udalak udaletxe aurrean duen aparkalekuan izango du geralekua taxiak.

# Osasun gida

anboto

**Optometria**  
PSE: 162/13

**keinu** optometria zentroa

Naila Zabala Azumendi  
11587 kol. zk.

- Optometriari teknika aintzindariak.
- Kontaktologia.
- Haurren ikusmena.
- Ikusmen terapia.
- Erreflexu primitiboak
- Syntonic fototerapia.
- SENA estimulazio neuroauditiboa.
- Orto-k.

Arkaraz 3  
48240 Berriz  
tel: 946225099

www.keinuoptomietriazentroa.com

**Pedagogia**  
PSE: 63/63

**UGATZ**

**UMEAREN GARAPENERAKO ZENTROA**  
Laguntza goiztiarra, psikomotritzitatea, fisioterapia, logopedia

Juan Olazaran, 1 behea  
DURANGO  
ugatz@hotmail.es  
944 668 370 - 615 782 090

**Fisioterapia**  
PSE: 119/13

**Zainduz**

**FISIOTERAPIA OSTEOPATIA**

Ane Legorburu Munitxa

Trañabarren 13, 4. blokea  
behea eskuma  
MATIENA-ABADIÑO

944 657 132 - 686 906 374

**Fisioterapia**  
PSE: 57/16

**pablo zubizarreta**  
fisioterapia & osteopatia

Muruetatorre, 2D  
DURANGO

pzubizarreta@gmail.com  
946 550 049 - 695 784 963

**Fisioterapia**  
PSE: 155/17

**HOBETU**  
Fisioterapia & Podologia

info@hobetu.es  
T/ 946 582 444

K/ Buzkantz kalea, 2  
P.K./ 48230 Elorrio  
www.hobetu.es

**Podologia**  
PSE: 148/13

**PAUSOZ PAUSO**  
**PODOLOGIA KLINIKA**

GOIATZ MURUA  
Podologoa  
AINHOA ELORZA  
Podologoa  
NEREA RODRIGUEZ  
Podologoa

Kiropodia, onikopatia,  
alteraziadermatologikoak  
eta ibilerako alterazioak

Monagotorre, 4 behea DURANGO  
946 203 630

**Odontologia**  
PSE: 145/13

**clínica dental hortz klinika**  
b. unamunzaga e. etxebarria

ODONTOLOGIA OROKORRA  
ETA ESPEZIALITATEAK  
08:00etatik 21:00etara ZABALIK

{Muruetatorre, 2C blokea, behea}  
DURANGO  
Tel.: 946 819 951  
Mug.: 717 194 454  
uecdental@gmail.com

**Odontologia**  
PSE: 112/13

**J.L. URRETA ZABALO**  
MEDIKU ESTOMATOLOGOA  
IMQ, PADI (umeen hortz programa)  
Ortodontzia

Zumalakarregi, 18 - 1. ezk.  
48200 DURANGO  
Tel.: 946 812 200

**Estetika**  
PSE: 16/09

**AGIRRE KLINIKA**  
MEDIKUNTZA ESTETIKOA

www.medicinaesteticadurango.com

**Laser berria:**  
Tatuajeak behin betiko kentzeko laserra

Obesitatea-zelulitisa, Laserra: depilazioa (prezio bereziak), barizeak... Adinaren kontrako tratamenduak: orbanak, botoxa...

Txatxiena, 6  
48200 - DURANGO  
Tel.: 946 810 387

**Psikologia**  
PSE: 62/11

**JON ARRUABARRENA**  
PSIKOLOGO KLINIKOAK  
PORTAERA TERAPIAN MASTERDUNA

- Antsietatea, estresa, fobiak
- Depresioa • Eskola arazoak

UMEAK - NAGUSIAK - BIKOTEAK

Frantzisko Ibarra, 6 DURANGO  
jon@psikologo.biz - www.psikologo.biz  
Tel.: 946 033 246 - 629 245 728



## Errautsak gordetzeko kolunbarioak ipiniko dituzte Garaiko hilerri berrituan

**GARAI** • MARKEL ONAINDIA

Astelehenean hilerria berritze-ko obrak hasi zituzten Garain. Hiru helburu ditu udalak. Batetik, hilobietan etorkizuneko hildakoei lekua egitea, dagoeneko leku gutxi baitago. Bestetik, bertan dagoen kapera berrizteko beharrezana ikusi dute. Eta, hirugarrenik, kolunbarioak ipintzea. Azken hauetan, hildakoen errautsak gorde ahalko dira aurrerantzean.

Obrak datozen hiru hileetan zehar garatzea aurreikusi dute, eta 66.500 eurotan adjudikatu dituzte. Beharrezan arbera pentsatutako obra da, hasiera batean 2017ko udal aurrekontuan txertatu zutena. Urteko inbertsiorik handiena izango da.

## Eredu energetikoa aldatzearen beharraz jardungo dute Gaztetxeko hitzaldian

**OTXANDIO** • J.D.

Gaur egungo eredu energetikoa aldatzearen beharraz arituko dira gaur, 18:30ean, Otxandioko Gaztetxean antolatutako hitzaldian. Berriztu taldeko kideek eskainiko dute, eta, besteak beste, lur azpiko gasa ateratzeko fracking bidezko sistema izango dute hizpide. Taldearen helburuak fracking-aren arriskuez ohartaraztea, mota horretako proiektuak gelditzea eta gizartean eredu energetikoaren gaineko hausnarketa eragitea dira.

## Hasi dute informatika ikastaroetan parte hartu ahal izateko izen-ematea

**IZURTZA** • J.D.

Izurtzako liburutegian dagoen KZgunean informatika ikastaroak emango dituzte maiatzean. Ezagutzaren arbera, mota desberdinetakoak egongo dira. Izen-ematea martxoan egin behar da, eta liburutegian ikusi daiteke, 16:30etik 20:00etara, zer aukera dagoen. Ikastaroak maiatzaren 7tik 18ra izango dira, astegunetan. Klase batzuk 16:00etatik 18:00etara izango dira, eta beste batzuk, 18:00etatik 20:00etara.

# Elkarretaratzera deitu dute martxoaren 17rako, Zaldibarko txakurrentzako gunea aldarrikatzeko

Txakurren jabeek sinadura bilketa abiatu dute 'change.org' webgunean. Dagoeneko 359 sinadura batu dituzte



Orain aste bi, udaleko plenoaren orduan elkarretaratzea egin zuten udaletxearen ondoan.

**ZALDIBAR** • JONE GUENETXEA

Zaldibarko txakurren jabeek mobilizazioak egiten jarraitzen dute, abenduan udalak araudia aldatu zuenetik herrian ez dagoelako txakurrak solte ibiltzeko lekurik. "Udalagaz batu gara eta badakigu aurrerapausoak ematen ari direla, baina konponbidea heldu bitartean zelan joango gara mendira txakurrak solte ibiltzeko?", diote txakurren jabeek. Izan ere, udalak leku "egoki" bat atondu bitartean,

### Durandog elkartearen laguntzagaz, alegazioak aurkeztu dizkiote araudia aldatetari

mendia dute leku bakarra txakurrak solte ibiltzeko. "Txakurrak ataratzera irteten diren asko nagusiak dira edo gaixotasunen bat dute, eta ezin dira mendira joan. Herrian leku egoki bat behar dugu". Egoeraren aurrean, martxoaren 6an amai-

tu zen araudiari alegazioak aurkezteko epea. Durandog Durandog elkartearen babesagaz alegazio horiek prestatu dituzte. Joan zen asteko zapatuan batzarra izan zuten liburutegi zaharrean, hurrengo

### Elkarbizitza bultzatu guran, txakurren gorotzak batzeko sentsibilizazio kanpaina bat hasi dute

ekintzak pentsatzeko. Martxoaren 17rako, elkarretaratzea aurreikusi dute udaletxe ondoan, Durandog elkartearen babesagaz.

Bestalde, change.org webgunean sinadura bilketa abiatu dute. Da-

### "Orain, txakurren rola aldatu egin da. Familiako parte dira", diote jabeek

gogoko 359 sinadura batu dituzte txakurrentzako leku egoki bat aldarrikatzeko.

Zaldibarren 100 txakur inguru daude. Abere hauen jabeek diotenez, "familiako kide" dira, eta, beraz, udalaren erabakiak ehunka herritarrei eragin die. "Lehen, txakurrak artzainak, zaindariak edo ehiztariak ziren. Orain, txakurren rola aldatu egin da. Familiako parte dira", azaldu dute. Era berean, jokabide batzuen kontra daudela ere nabarmendu dute. "Badakigu batzuek ez dituztela beraien txakurren gorotzak batzen. Guk gurenak batzen ditugu, eta, ildo horretatik, kontzientziario lana egin beharko genuke", adierazi dute. Elkarbizitza bultzatu guran, txakurren gorotzak batzeko sentsibilizazio kanpaina bat jarri dute martxan.

## Olazar gaineko eraikineko gune autogestionatuak 14 urte bete ditu

Aste osoko egitaraua antolatu dute gazteek; zapatuan, egun osoko festa izango dute

**ZALDIBAR** • ARITZ MALDONADO

Martxoaren 6an hamalau urte bete ziren herriko gazteak Olazar gaineko eraikinean lehenbizikoz bildu zirela. Urtemuga gogoratzeko, aste osoko egitaraua prestatu dute bertako kideek. Gaur antzerkia egongo da; eta zapatarako egun osoko ospakizuna antolatu dute. Herri bazkaria egingo dute 14:30ean, eta, ostean, poteo girotua. Gauaz Sermond's eta Mocker's taldeek kontzertua eskainiko dute. Egundik 19-26 urte bitarteko gazteak joaten dira gaztetxera, eta bertako kideen erronka nagusia eraikina gazte berrientzat ere erreferentziazko gune bilakatzea da.

### Herriko dinamiken parte

Herri mugimenduko egitasmoekin bat egiten dute gazteek. Eguenean, adibidez, nazioarteko greba deialdiari ekarpena egiteko, umeen zaintza eta jantoki zerbitzuak eskaini zituzten gaztetxean. Horrez gainera, Barrurak sinadura bilketa eta proposamen bat eraman zituen eguaztenean udaletxera, eta hori ere babestu du gaztetxeak.





UNAI INGUNZA. 'ZORNOTZA ATZO'

## Hareek denporak!

# IDI PROBAK KALBARIOKO PLAZAKO BIDEGURUTZEAN

Zornotzako Kalbario plazako bidegurutzeko idi probak egiten zireneko argazkia da honakoa. XX. mende hasieran ateratako irudian agerienez, herriko plaza lez funtzionatzen zuen espazio horrek. Bistan da sasoi hartan ere ekitaldi askotan gizonen espazioa zela.

Kalbarioa 1936an eraikitako bidegurutzeko izan zen. Benita Zelaietak emandako diruagaz eraiki zuten, erdiko gurutzeko

inskripzioan irakurri daitekeen: *Se hizo a expensas de Doña Benita Zelayeta...1936*. Oraindik ere leku berean dago bidegurutzeko.

Argazki hau eta Zornotzako historia islatzen duten beste hainbat altxor jaso zituen Unai Ingunza Renteriak *Zornotza atzo* liburuan. Enrike Renteria bere aitona batutako irudiak partekatzea zuen helburu. Liburua herriko liburu-dendetan dago salgai. J.G.

## Sei hankako mahaia

Goiztidi  
Diaz Basterra  
EAJ



### Emakumea eta harro

Halan da, bai. Emakumea izateaz harro gaude guztiak eta martxoaren 8an agerian geratzen da emakumeok dogun erronka: berdintasuna, hain zuzen ere. Baina lana ez da egun bateko zeregina, urtean egun batzuetarako kaleratzen gara asko gure aldarrikapenak egiteko, baina borroka egunero egiten dogu.

Askok gara historikoki gizonetzakoena zen lanbideetan gogor ekiten diogunak. Harro gaude, egunero egunero gure gaitasuna agerian jartzeaz eta, nahiz eta kostata izan, gure erantzukizunak gora egiteaz, inguratzen gaituzten gizonetzakoak atzean utzita.

Tamalez, oraindik ere badago lana egiteko, badaude diskriminazioa jasaten duten emakumeak eta indarkeriaren inperuan bizi direnak. Gaur egun ere ikus daitezke emakumeak aurrera egitea gogoko ez duten gizonetzakoak. Hori bai izurritea eta ez hamaugarren mendean jasandakoa. Oraindik borroka feministak badu lana, baina ez dogu amore emango, ez martxoaren 8an ez inoiz.

Nire esku dagoena eginez, egunero ekingo diogu lanari, gure gaitasuna maila gorenean jarritz. Harro nago egunero egiten dudana borroka, eta harro inguratzen nauten lankide emakumeek ere halan egiten dutelako. Bidea latza izan da askotan, baina gure gaitasuna kontuan hartu dadin lortu dogu, emakume izatea eragozpen bat izan gabe. Horretan ez nago bakarrik. Eskerrik asko, Esti eta Leyre, emakumeek izan dezaketenen adorea, gaitasuna eta indarraren adibide paregabeak. Aurrera, neskak! Guk, beti bezala, jakin eta egin!

## Durangaldea asteen

### Astelehenean hasiko dira Durangoko tren geltokiko sarbidea konpontzeko lanak

**Durango** | Martxoaren 12tik aurrera ezingo da sarbide hori erabili, eta ondorioz, Askatasun etorbidean dagoena zein merkataritza gunera sartzeko dagoena erabili beharko dituzte erabiltzaileek. Lanak udaren amaiera aldera bukatzea aurreikusi du Eusko Trenbide Sareak. Sarbidea estaliko dute ETSko beharginek, eta segurtasun aldetik ere hobetuko dute. Izan ere, eskailera lanbainkorrak dira eta kexa ugari jaso dituzte zabaldu zenetik.

### Durangoko Aukera Azokak 20.000 bisitari inguru izan ditu aurtengo aldian

**Durango** | Dendak Bai Merkatarik Elkarteko kideek jakitera eman dutenez, Aukera Azokak sasoi berriari aurre egiten, stocka garbitzen eta likidezia lortzen laguntzen die saltokiei. Hori horrela, azoka "modu positiboan" baloratu dutela jakitera eman dute ohar batean. Azokaren 13. aldian eskualdeko, Bizkaia osoko zein Gipuzkoako 20.000 bisitari inguru jaso dituzte.

### Arazakeriaren kontrako asteen hainbat ekintza antolatu dituzte Zaldibarren

**Zaldibar** | Zaldibarko Jendeak elkarteak eta IGE Zaldibarrek —ikasleen guraso elkarte— arazakeriaren kontrako astea antolatu dute. Martxoaren 16ko barikuan, 18:30ean, kontzentrazioa egingo dute udaletxeko plazan. Umeentzako eskulanak eta txokolatada ere izango dira arratsalde horretan. Martxoaren 21eko eguaztenean, berriaz, arazakeriaren kontrako film bat eskainiko dute Zaldibarko liburutegian, 18:30ean.

## Iritzia

### SAPUETXE, 19 URTE ETA HAMAIKA BIZIPEN

Antzaenez, hauteskundeetan egindako promesa gutxienetako bat beteko du udal gobernua laster, hurrengo hilabeteetan: Sapuetxeren eraisketaz gero. Erreka aitzakia moduan jarrita, Sapuetxeren eraisketa zuzitzeko muntaia dotore bat asmatu dute, herriko jendea pozik geratzeko. Argi geratu da udal gobernuaren 2018ko apustua nortasun eta historiaz betetako eraikinak eraitea dela, erakusleho bat ematen duen porlanezko Durango bat eraikitzeko.

Guretzat Sapuetxe eraikina bera ez da helburu bat, gure ametsak betetzeko eta helburuak lortzeko baliabide bat baizik. Materialari beste edozeri baino garrantzi gehiago ematen zaion gizarte materialista honetan, guk beste balio batzuei ematen diegu garrantzia, eta horregatik jarraituko dugu amesten, helburuak lortzeko baliabide berrien bila.

Sapuetxek eman diguna ez digu inork kenduko, eta ezin ditugu ahaztu bertan garatutako maitasun, adiskidetasun eta elkartasun harremanak. Pertsona eta kolektibo piloa pasatu da hemendik eta horrek asko aberastu du proiektua. Denoi esker hau erresistentzia gune bat izan da eta esperientzietatik ikasten saiatu gara, gure buruak heziz eta pertsona moduan haziz.

Apirila ospakizun hilea izango da, urte hauetan guztietan bizitakoa berriro bizitzeko. Sapuetxeren historian hemendik pasatutako denok gonbidatzen zaituztegu elkarrekin bizitako guztia ospatzeko. Jarraitu dezagun gure autogestionatuak sortzen eta erabiltzen. Garabiek ezin dituztelako ametsak txikitu, amesten jarraituko dugu!

Jon Unzueta, Egoitz Uriarte, Ane Larrañaga, Luis Calvo, Gorka Zuazua eta Irantzu Zuazua (Sapuetxeko asanbladako kideak).

### Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, - IURRETA · Izen-abizenak · telefonoa · helbidea · Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarateak barne).



Jolasten ikastea errazagoa delako  
Andra Mari kalea 9 - 94 400 39 69



Iurreta  
Eleizateko Udala

2018  
**Antzerkia Bultzatuz**

Sarrera dohainik  
Gonbidapenak hartzeko kultur etxean











[www.plazanbazan.eus](http://www.plazanbazan.eus)  
Egilea: Garbine Ubeda (Aiorri)

## Osatu

Erdizka margotuta dauden zazpi irudi hauetatik hiru elkartzuz gero, etxea behar bezala osatuko duzu. Batura horretan elementuek (kea, teilatua, atea...) behin bakarrik agertu behar dute koloreztatuta. Har ezazu kolore zuria gardena balitz bezala.



Asma ezazu mezu ezkutua. Esaera zahar bat da.

BEHIAK hitza osatzen duten hizkiak erabiliz, osa ezazu **SUDOKUA** Hizki bakoitzak behin agertu behar du lerro, zutabe eta area bakoitzeko.

	B		A	K
A	E		B	H
	H	A	I	E
	I		H	B
	A		E	
	K		I	

**BEHIAK**



## Gogoa non...

Jarraian zer datorren asmatzen baduzu, esaera zahar ezagun bat osatuko duzu.

- Gogoa non, begiak zoro eta bihotza edonon.
- Gogoa non, zu beti berton.
- Gogoa non, lagunik ezin aurkitu inon.
- Gogoa non, normalki Amoroton.
- Gogoa non, poza beti da on.
- Gogoa non, lanak hor konpon.
- Gogoa non, zangoa han.

by Kids&Us.  
school of english

FUN WEEKS

HIRI-KANPAMENTUAK INGELESAZ  
3 URTEK 10 URTERA

Kids&Us Durango - Uzuengoa Plazaren Paraleloa, 8 - 48001 Durango  
T. 946 513 343 / 946 570 113 - durango@kidsandus.es - www.kidsandus.es





## Biren

MUSIKA

DURANGO :: Martxoak 11

Platerueneko Aperitif Session zikloaren baitan, Biren talde mutrikuarrak joko du domeka honetan, 13:00etan, doan. Ane eta Nora Agirre bikiek osatzen dute taldea, eta hainbat bertsiotzetan jotzen dituzte. Hirugarren sailkatu ziren Euskal Herriko kantu txapelketan.

### Martxoaren 9an

**ELORRIO ipuin kontaketa** "Neure burua maite dut" Bego Alabazanen eskutik (7-10 urte bitarteko umeentzat eta beraien gurasoentzat), 17:30ean, udal liburategian.

**DURANGO tailerra** "Telebistako fikzioaren lengoia" Marc Ambiten eskutik, 18:30-20:30 bitartean, Bizenta Mogel bibliotekan.

**ZORNOTZA antzerkia** Maria Goirizelaiaren "Lyceum Club", 20:15ean, Zornotza aretoan.

**ELORRIO dantza** "NOW" Lasala konpainiaren eskutik, 20:30ean, Arriolan.

**DURANGO lehiaketa** "Pub Quiz" lehiaketa, 21:30ean, Plateruenean.

**ZALDIBAR antzerkia** "Adarretatik zintzilik" antzezlan, 22:30ean, gaztetxean.

### Martxoaren 10ean

**DURANGO tailerra** "Telebistako fikzioaren lengoia" Marc Ambiten eskutik, 11:00-13:00 bitartean, Bizenta Mogel bibliotekan.

**DURANGO jolasak** "Esperimentazioa" familiar jolasteko beste modu bat, 11:30ean, Plateruenean.

**BERRIZ musika** "Oceanes" Clara Peyaren kontzertua, 20:00etan, Kultur Etxean.

**DURANGO lehiaketa** "Esto no es Rock Radikal Vasco" gorazarre festa; Picadura (Barricada), Pakean Utzi Arte (Hertzainak) eta Zona Especial Norte (RIP), 21:30ean, Plateruenean.

**ZALDIBAR urteurren jaia** Herri bazkaria, gaztetxean, 14:30ean, poteo girotua, 18:00etan, Mocker's eta Sermond's taldeen kontzertua, 22:00etan, gaztetxean.



Ardoaren eta delicatessen produktuen azokaren XI. edizioa egingo da bihar Landako Gunean. Hainbat upategitako ardoak dastatu ahalko dira, eta sukaldaritzako azken tendentziak ezagutu ere bai.

ANBOTOkoko agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi [agenda@anboto.org](mailto:agenda@anboto.org) helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.

### Martxoaren 11n

**IURRETA irteera** Umeentzako mendi irteera Belatxikietara Zaldai mendi taldearen eta Maiztegiko Guraso Elkartearen eskutik, 08:30ean, Durangoko tren geltokian.

**DURANGO antzerkia** "Alizia Lurralde Miresgarrian", 12:30ean eta 18:30ean, San Agustin kultur gunean.

**DURANGO musika** Biren taldearen kontzertua, 13:00etan, Plateruenean.

### Martxoaren 12an

**BERRIZ dastatzea** Arabako Errioxako ardoa, Eusko Label olibaren eta Idiazabal gaztaren dastatzea, 19:00etan, Kultur Etxean (izena eman behar da).

### Martxoaren 14an

**ELORRIO berbaldia** "Mugi dezagun mugarrria" Angel Oiarbideren eskutik, Elorrioko Gure Esku Dagok antolatuta, 19:00etan, udaletxean.

**DURANGO zineforuma** "Herrien askapena, atzo eta gaur" zineforum politikoa, Iratxe Fresneda eta Mario Zubiagarekin (Aurretik, La Batalla de Argel ikusita edukitzea gomendatzen da), 19:30ean, plateruenean.

## Ardo Saltsan

DURANGO :: Martxoak 10



# Ume sahararrak etxean hartzeko

**HITZALDIA** | Oporrak Bakean programa martxan dago Euskal Herrian, udan ume errefuxiatu sahararrak ekartzeko helburuz. Rio de Oro elkarteak da ekimenaren bultzatzaileetako bat, eta euren bitartez parte hartzeko deia egin diete Durangaldeko biztanleei.

## Informazioa, 16an

Interesa dutenei, martxoaren 16rako antolatu duten berbal-dian informatzeko gonbita egin diete. 18:00etan izango da, Durangoko Pinondo Etxean.

Tindufeko (Aljeria) errefuxiatuen kanpamentuetan dauden sahararrek bero handia sufritu behar izaten dute udan, eta horregatik ekartzen dituzte umeak.

Baita osasun arretagatik eta elkartasunagatik ere. Gastu esanguratsuenak Rio de Oro elkartearen esku egongo dira. Martxoaren 31ra arte eman ahal da izena.



## Euskaraldia, herririk herri zabaltzen ari den dinamika

**EUSKARA** | 2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra bitartean garatuko da Euskaraldia, 11 egun euskara hutsean bizitzeko apustua izango dena. Herririk herri badabilta ekimenaz informatzen eta hauspoa ematen. Izan ere, ahalik eta herritarrik gehien aktibatu gura dituzte bertan parte hartzeko. Euskaraz berba egingo duten ahobiziak eta hitz egiteko gai izan ez arren entzuteko gai diren *belarriprestak* behar dira ekimenerako. Euskararen erabilera indartzea da egitasmoaren helburu nagusia.

Orain arte, Elorrioren, Zaldibarren eta Zornotzan egin dituzte aurkezpenak, besteak beste. Datorren astean, Durango, Iurreta eta Berrizen txanda izango da.

### Martxoaren 13an

**Durango. 'Ideia bat daukagu'. Batzar zabala.** 19:00etan, AEKren egoitzan.

### Martxoaren 14an

**Aurkezpena: 'Iurretan ere egingo dugu?'**, 18:30ean, Ibarretxe kultur etxean.

### Martxoaren 15ean

**Aurkezpena: 'Berriz euskaldunagoa gura dozu?'**. 20:00etan, kultur etxe zaharrean.

### Martxoan zehar

**DURANGO tailerra**  
**"Adineko pertsonentzako tailer psikosoziala**  
**Aramotz auzoan**, martitzen eta eguenetan 10:00etatik 11:30era, Sasikoa 34. zenbakian.

### Martxoaren 2tik 11ra

**DURANGO erakusketa**  
**Durangaldeko artisten elkarteko kideen erakusketa**, Ezkurdiko udal aretoan.

### Martxoaren 16tik 25era

**DURANGO erakusketa**  
**Kurutziaga elkarteko kideen erakusketa**, Ezkurdiko udal aretoan.

### Otsailaren 7tik maiatzaren 30era

**BERRIZ ikastaroa**  
**Emakumeen jabeakuntza eskolaren baitan, Mindfulness ikastaroa**, 12 urtetik gorako emakume berriztarrentzat, eguaztenetan 16:30-18:30 bitartean, Kultur Etxean.

### Otsailaren 9tik martxoaren 9ra

**ABADIÑO ikastaroa**  
**Autodefentsa feminista**, barikuetan, 17:00-20:00 bitartean, Txanporta kultur etxean.

### Martxoaren 2tik martxoaren 23ra

**BERRIZ erakusketa**  
**Leticia Gaspar**, Kultur Etxean.

## Martxoko agenda



<b>10</b>	<b>"Anderebide Emakumeen Elkarte-Gizarte Ongizatea"</b> 20:45 Bidebarrietan autobusa (Plaza mugatuak) 21:30 Afaria eta dantza Agarrekon (Arriandi)
<b>11</b>	<b>"ZALDAI MENDI TALDEA"</b> Mendi irteera "Belatxikieta" 08:30 Durangoko tren geltokian Zornotzara trenuz joateko. Ibilbidea: 14km
<b>12</b>	<b>"IURRETAKO HERRI BIBLIOTEKA"</b> Paperezko hegoak: haurrentzako irakurketa kluba 15:45 D.B.H. 1. maila 17:00 L.H. 5. maila 18:00 L.H. 6. maila
<b>13</b>	<b>"IURRETAKO HERRI BIBLIOTEKA"</b> Euskara eta gaztelaniako irakurketa klubak 17:00 Levedad / Catherine Meurisse 18:30 Sukwan irla / David Vann Anderebide Emakumeen Elkarteak 18:30 Zine Forum "The lady in the van"
<b>14</b>	<b>"IURRETAKO HERRI BIBLIOTEKA"</b> 10:00 Nagusientzako XL irakurketa kluba
<b>15</b>	<b>"GIZARTE ONGIZATEA"</b> 12:00 "Maniki erronka" lehiaketako sari banaketa eta bideoen emanaldia



Mocker's eta Sermond's elkarregaz arituko dira Zaldibarko gaztetxean, honen urteurrena ospatzeko.

### Martxoaren 5etik martxoaren 13ra

**BERRIZ ikastaroa**  
**'Zure Android gailua erabiltzen hasi'**, 16:30-18:30 bitartean, Kultur Etxean.

### Martxoaren 14an eta 15ean

**BERRIZ ikastaroa**  
**'Smartphonen berehalako mezularitza'**, 16:30-18:30 bitartean, Kultur Etxean.

### Martxoan zehar

**DURANGO erakusketa**  
**Alaitz Muroren 'Seafun' erakusketa**, Artekan.

### Otsailaren 9tik martxoaren 9ra

**ABADIÑO ikastaroa**  
**Autodefentsa feminista**, barikuetan, 17:00-20:00 bitartean, Txanporta kultur etxean.

## Zinema

### :: Berriz KULTUR ETXEA

**Ferdinand**  
barikua 9: 18:15  
domeka 11: 17:00

### :: Durango ZUGAZA

• **Un pliegue en el tiempo**  
barikua 9: 19:30/22:30  
zapatua 10: 17:00/19:30/22:30  
domeka 11: 16:30/19:00/21:00  
astelehena 12: 18:30/21:00  
martitzena 13: 20:00  
eguzartena 14: 20:00

• **Historias de una infancia**  
barikua 9 19:30/22:00  
zapatua 10: 19:30/22:30  
domeka 11: 19:00/21:00  
astelehena 12: 18:30/21:00  
martitzena 13: 20:00  
eguzartena 14: 20:00

• **Winchester**  
barikua 9: 19:30/22:00  
zapatua 10: 19:30/22:30  
domeka 11: 19:00/21:00  
astelehena 12: 18:30/21:00  
martitzena 13: 20:00

• **Oin handiaren semea**  
zapatua 10: 17:00  
domeka 11: 16:30

### :: Elorrio ARRIOLA

• **Alanis**  
zapatua 10: 22:00  
domeka 11: 20:00  
astelehena 12: 20:00

• **Maya erlea**  
domeka 11: 17:00

### :: Zornotza ARETOA

• **La forma del agua**  
zapatua 10: 22:30  
domeka 11: 20:00  
astelehena 12: 20:15



# “2018a ez da iaz bezain ongi hasi; heltzear dira interesgarriak diruditen proiektuak”

Hirugarren urtez, telesailen buruzko tailerra prestatu du Bizenta Mogel bibliotekak; Marc Ambitek gidatuko du, urtero legez



**Marc Ambit Fernandez**  
Formatzailea

**Bartzelona | 1971**

## TELEBISTA • ARITZ MALDONADO

**Mazinger Zgaz hazi zela, Twin Peaks eta Expediente Xgaz heldu zela, eta Perdidos eta Prison Break-ek guztiz harrapatu zutela aitortzen du Marc Ambitek. Orduetik, ez dio telesailak ikusteari utzi.**

## Zer ikusiko duzue tailerrean?

Telesailen narrazioaren eta beste-lako diziplina narratiboen artean (literatura, komikia, argazkigintza, irratia, antzerkia, eta, nola ez, zinema) eraiki daitezkeen zubiei buruz jardungo gara. Telesailen urrezko hirugarren aro honi oso ondo datorkion galdera baten bueltan

“**Plazerra da Durangora itzuli eta zale fidelegaz batzea; telesail pila ikusten dute, nik baino gehiago ziur!**”

“**Parte hartzea sustatzea erraza da; tailerrak irauten duen lau orduetan 300 telesaildik gora aipatzen dira**”

arituko gara: telesailen lengoia narratibo propioa dute? Ala, beharbada, beste diziplinaren batetik “lapurtu” dute? Galdera egokia da nire iritzian, azken aldiaren sarri aipatzen baita zein zinematografikoa den narrazioa egungo telesailen. Telesailen zine munduko profesionalen nolabaiteko inbasioa jasan dute azken urteetan; hala ere, bestelako iturrietatik ere edan dute.

## Tailerrak dinamikoak izan ohi dira. Zenbat jende egon ohi da?

Urtero, gero eta jende gehiago etortzen da. Telebistako fikzioa osasuntsu dagoen adierazlea da hori. Parte-hartzea sustatzea ikaragarri erraza da, izan ere, tailerrak irauten duen lau orduetan, 300 telesail baino gehiago aipatzen dira. Imajinatu dezakezun bezala, ikusita dituzun telesailen buruzko hainbeste estimulu jasota, erraza da “Nik hori ikusi dut” edo “Hori bikaina da!” esatea. Tailerreko gai zehatza zein den ez da garrantzitsua izaten (hirugarren urtea da, eta bakoitzean gai bat jorratu dugu); ehunka telesail erabiltzen ditugu beti adibide moduan, eta errepasso zabal bat egiten diogu telesailen historiari, 50eko hamarkadatik hasi eta gaur egun arte. Bestalde, zenbait dinamika prestatuta eramaten ditut, parte-hartzea bultzatzeko. Sintoniak asmatzeko jokoa, edo trivialak... Aurtengo saioetarako, pare bat dinamika prestatu ditut bereziki.

## Zaletasuna dago Durangon?

Bai, natorren hirugarren aldia da jada! Plazer bat da beti Durangora

etortzea, eta zale fidelekin berriz batzea. Telesail pila bat ikusten dute, gainera; nik baino gehiago, ziur! Gehienak koaderno batez datoz, eta aipatzen diren telesailak apuntatzen dituzte. Hori da gauza interesgarrienetako bat, berez luzea den zerrenda bat handitzea. Honek beste hausnarketa bat dakar: ikusleen garapena. Egungoa zorrotzagoa da, ezagunago ditu telesail berrien lengoaiak, eta ez ditu kontsumitzen ondo pasatzeko bakarrik.

## Osasuntsu dago estatuko fikzio telesaila?

Ziurrenik, bere momenturik gozorian dago. Telesailen hirugarren urrezko aroa AEBetatik iritsi da, baina bertako ikusleek ere ikusi dute, eta bertako fikzioekiko exigentzia maila igotzea ekarri du horrek. Horrela, *Los Serrano* edo *Los Hombres de Pacotik*, *Las Chicas del Cable* edota *Ministerio del Tiempo* igaro gara; gerta daiteke bi telesail hauek gustuko ez izatea, baina ekoizpen duina eta oso profesiona-

la dutela onartu behar zaie. Aurten bertan, *La Pesteko* atal bakoitzeko milioi bat euro inbertitu ditu Movistarrek. HBOk *Game of Thrones*eko atal bakoitzeko inbertitzen dituen 10 milioietatik urruti daude oraindik, baina hobetzeko gogoia dagoela erakusten du.

## Zeintzuk izango dira 2018ko eskaintzarik interesgarrienak?

2018 hau ez da hasi 2017a hasi zen bezain ongi. Philip K. Dick-en *Electric Dreams*, edo *Mosaic* eta *Altered Carbon* apustuek harrera epela jaso

“**Urtero bezala, itxaropen asko dago serie berriekin, baina nolako harrera duten ikusi behar da**”

dute. Hala ere, hilabete asko daude aurretik, eta oso interesgarriak diruditen proiektuak heltzear daude. Adibidez, Daniel Bruhlek parte hartzen duen *El Alienista*. *Counterpart* ere interesgarria dirudi. Bestalde, AMCk Dan Simmons-en *The Terror* nobelaren adaptazioa estreinatuko du. *Roseanne* sitcom mitikoaren itzulerak nolako harrera izango duen kuriositatea dut, baita *Sharp Objects*-ek eta *Castle Rock*-ek ere. Eta, nola ez, Coen anaien *The Ballad of Buster Scruggs*-ek. Azkenik, ikusteko dago zer egingo duen Amazonek *El Señor de los Anillos*en unibertsoagaz. Urtero bezala, itxaropen handia dago telesail berriekin, baina ikusi egin beharko da nolako harrera duten.

## “Onena klasikoekin hastea dela uste dut”

### TELEBISTA • A.M.

Telesailen mundura jauzi egiteko, klasikoekin hastea da onena, Marc Ambiten ustetan. Besteak beste, *The Wire*, *Perdidos*, *Breaking Bad*, *Los Sopranos*, *The Shield* eta *A Dos Metros Bajo Tierra* dira bere kutunak. “Beharbada ez dira historiako onenak izango, baina nire iritzian horietako asko dira onenak. *Kutxa inozoari* etekina ateratzeko asmoa duen edozeinentzat zoragarriak izango dira telesail horiek, eta asko gozatuko dute”, argudiatu du Ambit katalanak.



Ambit, aurreko urteetako saio batean.



# ARGIZTATU ZURE sukaldea

MARTXOAREN 31 BAINO LEHEN



Zure Schmidt sukaldea

**6400 €**-tik aurrera

**SCHMIDT**  
Sukaldeak eta etxeko altzariak



# Abandonaturik dauden espazioekin osaturiko bilduma Berrizen ikusgai

Heteroceros bildumako lanak erakutsiko ditu Leticia Gasparrek Berrizko Kultur Etxean

eta enpresa-sarearen hondatzea. Testuinguru honetan, espazio abandonatuek hausnarketarako subjektu bilakatu dira. Hau esanda,

“**Obra zerbait organikoa moduan lantzen dut, gehitu edo kendu ahala aldatzen dena**”

“**Elkarrizketa bat ireki gura dut hutsaren inguruan, denda itxiak erreferentziatzat hartuz**”

Leticia Gaspar margolaria, beharrean.

**MARGOGINTZA • ARITZ MALDONADO**  
Leticia Gaspar (1982, Plentzia) margolariaren lanak ikusgai egongo dira martxoan zehar Berrizko Kultur Etxean.

**Abandonaturiko parajeak, beirak, dendak... eta antzerakoak iza-**

**ten dira zure obrako protagonistak. Zein da bilatzen duzun erreakzioa?**

Une honetan, Bilboartek finantzatutako proiektu batean nabil bekadun. Bertan, garaiko medio urbanoaren eraldaketa aztertzen nabil, testigu garen fenomeno bat ardatz hartuta: kapital gabezia,

esan gura dut ez dudala errealtatea islatzera mugatu gura. Elkarrizketa bat ireki gura dut, hutsaren, isiltasunaren inguruan, erreferentzia moduan denda itxiak edo iragarrik gabeko panel publizitarioak hartuta. Obra bitan, Berrizko gaiak egongo dira ikusgai.

**Argiak sekulako garrantzia du zure lanetan. Nola inspiratzen zara?**

Betidanik pintatu izan dut, eta gaur egun esan dezaket, oinarritzotzat ikusten dudanera hurbiltzen hasi naizela, hau da, hunkitzeko gaitasuna edukitzera heltzen ari naiz. Pinturagaz dudak harremanak zerikusi handia du emozioagaz. Zerbait marrazteko, adierazi behar dudak objektuarekiko motibazio bat behar dut. Ez dut interesik erreferentziaren kopia bat egiteko; balio plastikoak koloreen, argiaren edo konposizioen erabilera, edota keinuen erabilera. Gainazalak prozesuaren nondik norakoa azaltzen du; zenbait geruza gainjartzen dira, pintura ezartzeko modu ezberdinak, eta zenbait akabera emanez, arkatzezko trazuak, kreta edo aldaketak erakutsiz. Prozesu linealak eta metodikoak saihesten saiatzen naiz: obra bera zerbait organikoa legez lantzen dut, gehitzen edo kentzen diren elementuen arabera aldatzen dena. Ikuslea bereganatzen duten argia eta konposizioa dituzten obrak margotzen ditut. Azken finean, adierazten den horretara hurbiltzera gonbidatzen duen misterio batez egin dezakegu berba.

**Tesia egiten ari zara, ezta?**

Bai. Une honetan, tesia amaitzen ari naiz, eta EHUko talde ikertzaile bati laguntzen ari naiz.

**Geure Durangaldea**

Garazi Mugarza Markina Erizaina



**Geratzen dena**

Nonbait irakurri nuen jaio garen lekuan jaio garela egin behar duguna egiteko. Eta gezurra dela diot, areago, sinisgaitza egiten zait besterik gabe egin eta errepikatzen kondentatuta gaudenaren usua; hori baino espontaneoagoak garela pentsatu nahiko nuke, ekiteko eta hobetzeko gogoak daukagula mundura sortzen garenetik.

Gabiltzan bideak harrapatu gaituela idatzi zuen Jose Luis Otamendik “Kapital publikoa” poema liburuan; egiten dugunagatik datorkigula datorkiguna alegia, eta ez alderantziz, edo halako zerbait. Ez dakit iragandako urte bakoitzak balio izan digun egindakotik ikasteko, askok gure aldeko abantaila izan behar luketen arren honezkero edo ez ditugu oroitzen, edo ez zaizkigu inporta.

Lehenagoan lagun on batzuekin izandako elkarrizketa datorkit gogora, nola gure belaualdian galtzen ikusi dugun gure gurasoen kontzientzia kolektiboa. Ze, jarraitzen dugu batzuetan gutasun horretatik hitz egiten, baina norberaren gainesposizio eta erakuskeria nagusitu diren garaiotan, salatu nahi dugun logika beraren biktima bihurtu gara. Eta patuaren kontua eginbeharretatik salbu sentitzeko aitzakia baino ez balitz ere, zer? Jendeak gauza ederrak izorratzen ditu eta horregatik ez dira denak kontatu behar.

Joan den astean herritar bat itzuli zen, urte luzez erbestean izan dena, eta lotsa moduko bat sentitu nuen laga zuen horretatik ezer geratzen ote den pentsatzen hasitakoan, gauzak asko aldatu direlako, eta ez nabil formagatik bakarrik. Kontatuko digu zer topatu duen. Ongi etorri, Pako.

# Xabier Amurizak ‘Neska bat leku imposiblean’ liburua aurkeztu du

Amurizak berak bizitako istorio bat fikziora eraman du Elkarrek kaleraturiko obra honetan



Xabier Amuriza, artxiboko argazki batean.

**LITERATURA • A.M.**

70eko hamarkadan Zamorako (Espainia) espetxean preso egondako euskal abade talde baten ihesaldi saiakera kontatzen du eleberririk. Tunel bat zulatzearekin, eta urte biko lanaren ostean (hamazpi metro luze zen tunela zulatu zuten), kaleko argia ikusi ere egin zuten zuloaren beste aldean. Azken unean, ostera, espetxezainek tunela atzeman eta ihesa saiakeran geratu zen. Amuriza bera tunelgile

aritutakoan artean zegoen, Julen Kaltzadagaz eta Alberto Gabikago-geaskoagaz batera, besteak beste. Ihesaldian abadeei lagunduko dien neska da liburuko protagonista.

Nobela Elkar argitaletxeak kaleratu du. Aurkezpenean esandakoaren arabera, Amurizak aspalditik zuen buruan istorio hori idazteko asmoa; hala ere, kronika baino, nahiago zuen literatura egin. “Nik motiboak hemengoak gura ditut, Euskal Herriak bizi izan dituenak. Nire sinbolo literario nagusiek euren tokian tokiko giroa egin dute”, azaldu zuen.

Hogeitaka liburu ditu argitaratuta Amurizak, askotarikoak. Fikzioa egin du, bertsolaritzari buruz idatzi du, saiakera egin du eta autobiografia ere landu du.

**Alicia Iurrealde miresgarrian**  
Glu Glu Produzioak

Martxoak 11,  
12:30etan  
18:00ean

San Agustin KULTUR GUNEA  
DURANGORUDALA

Sanagustinalde, 12 · Tel.: 946 030 021 · sanagustin@durango.eus

www.plateruena.eus

**PLATERUENA**

PLATERUENA  
Kafe Antzokia  
Landako Hiribidea, 4A  
DURANGO  
Tel.: 946 030 300  
jatelexea@plateruena.net

Martxoak 10 · 21:30ean  
**ESTO NO ES ROCK RADICAL VASCO 2**  
Kontzertua

Martxoak 11 · 13:00ean  
**BIREN**  
Kontzertua

Martxoak 14 · 19:30ean  
**ZINE FORUM POLITIKOA**  
Filmes

**zine forum POLITIKOA**

2/28 \*\*\* UNDER-GROUND  
03/07 \*\*\* YO, DANIEL BLAKE  
03/14 \*\*\* LA BATALLA DE ARGEL





IURRETA

**Tellitu-n  
hurrengo  
eraikuntza**

3 logelatako  
6 etxebizitza

2 logelatako  
11 etxebizitza

Garajea eta  
trastelekua barne

**Etorri  
ikustera!**

DURANGO  
KAFE ANTZOKIA - MONTEVIDEO

**Etorri ikustera geratzen diren  
2 etxebizitzak!**

*Durango herrigunean  
Energia eraginkortasun  
handiko etxebizitzak*

*Hiriko txaletak*

*Oiz mendira begiratokiak*

*Leku zabalak*



**ZARATE ELEXPE**  
ERAGILEAK

